


Itzulpenak eta Lankidetzak



Idaztrebetasunak lantzeko bi teknika*

Norman Coe

Paragrafoak edo pasarte luzeagoak idazteko beharrezkoak diren trebetasunetako batzuz jabetzen ikasleei laguntzeko erabilgarriak gertatu zaizkidan bi teknika deskribatu nahi nituzke. Bi kasuetan emaitza idazlan konbentzional bat da, baina lantzen diren trebetasunetan dago ariketaren gakoa:

a) apunteak hartzea eta hauetatik abiatuz lana garatzea;

b) titulu eta irakurlego jakin batzuentzat informazioak duen egokitasunaz erabakitzea (1);

c) informazio egokiaren inportantzia erlatiboaz erabakitzea, garrantzi txikiagoa duena baztertzeko asmoz;

d) informazioa ordenatzea;

e) juntagailuak erabiltzea (*bait, ordea, adibidez* eta horrelakoak);

f) sarreraz eta bukaeraz lana hornitzea.

Proposatzen dudana, ikasleek gauza hauek elkarrekin, taldeka, jorra ditzatela da eta, hori eginez, trebetasun berberak erabiltzen ikas dezatela, beren kasa prosa jarraia idatzi beharrean aurkitzen direnerako.

A.— Elenaren egun interesgarria

Irakasleak badaki Elenak —edo beste norbaitek— duela gutxi, egun, asteburu edo oporraldi interesgarria pasa duela. Honen ikaskidetako batzuk horri buruz zerbait jakin beharko lukete, baina teknika honek ondo funtzionatuko badu, denek ez lituzkete xehetasun guztiak ezagutu behar.

Irakasleak haxe besterik ez die esaten ikasleei: «Paragrafo (edo idazlan) bat idatz dezazuen nahi nuke 'Elenaren egun interesgarria' tituluarekin». Teknika hau lehenengo aldiz erabiltzen baldin bada, ez da faltako protestatuko duenik, deus ere (edo aski) ez dakiela hark egin zuenaz eta ea nola idatziko duen ba horretaz, esanez. Baina beste norbait konfaturatuko da, normalean, jakin behar dutena Elenari galderak eginez lor dezaketela. Une honetan Elena denek ikusi eta entzun dezaketen leku batean ipiniko da. (Irakasleak eska diezaioke honi galdera zehatzak erantzun ditzala, besterik gabe bere istorioa kontatu ordez.)

*Ingelesezt «Two techniques for learning writing skills», «*Modern Language Teacher*» aldizkarian argitaratua. Beraien baimenez itzulia eta berrargitaratua. Beste honako liburu honetan ere argitaratu da: Susan Holden, 1983, *Second Selections From Modern English Teacher*, Harlow. Longman.

Galderak lasterregi baldin badatoz (edota Elenak bere istorioa kontatzea besterik ez badu egiten), ikasleak berehala konturatzen dira denbora behar dutela apunteak hartzeko eta batzu besteei astiroago joateko esaten hasten dira, hori egin ahal izateko. Irakaslearen egin-kizuna alde batera geratzea da hizkuntz arazoetan laguntzeko, laguntzarik behar baldin bada eta, agian, beren kabuzko adierazpenak egiten ahalegintzen direnean ikasleei antzematen zaizkien eragozpen nagusiei buruzko oharra beste baterako jasotzea.

Ikasleek lanerako aski material egoki lortu dutenean (eta horrek esan nahi izan ohi du alferrikako hainbat material ere badutela), irakasleak eskatzen die lau bat laguneko taldetan bil daitezela. (Nire esperientziaren arabera aukeran lau laguneko taldeak dira hoberenak ihardueramota honetarako, baina ez ditut ikasleak behartzen launakako taldeak egitera, hirunaka edo bosnaka gustorako baldin badaude.) Irakasleak titulua gogorazten die ikasleei, lanaren luzera egokiena zein izan daitekeen erabaki eta ikasleoi aditzera ematen die eta idazlana nori zuzendua den esaten die—postatrukeko adiskidea, herriko egunkariaren irakurleak, etab. Gauza hauek kontutan hartuta, talde bakoitzak ondoko eragiketarako burutu behar ditu:

a) esandako luzerako idazlan baterako behar dutenaz gain zenbat informazio daukaten begiz jo, zenbat baztertu erabakitzeko;

b) titulua eta irakurlego horientzat interesik gutxiena duen informazioa baztertu;

c) gorde duten informazioa zein ordenatan jarriko duten erabaki eta hau zikinean kopiatu;

d) banandutako perpausak lotu, eza-gutzen dituzten juntagailuak erabiliz (irakasleak gogoraz diezazkizkie ikasleei erabilgarriak izan daitezkeela uste duen juntagailuak, arbelean zerrenda bat idatziz, esate baterako);

e) sarrerako eta bukaerako perpaus bana idatzi.

Hau dena egiten ari diren bitartean, Elena eta irakaslea ibil daitezke taldetik

taldera, datuak eta hizkera bilatzen laguntzeko, ikasleek hori behar dutenean eta behar duten neurrian. Orain arte taldeko inork ez du ezer idatzi behar izan, baina orain taldearen barnean adostasuna lortua denez, taldetako ikasle guztiek animatu beharko lukete produktu batura idaztera.

B.— Eguneko gaia

Irakasleak idarokizunak egitea proposatzen du «gaurko eztabaida» erako idazlan baterako gai gisa, idarokizun bat hautatzen du eta arbelean ipintzen du. Gai posibleak «Asteburuak», «Eskolak», edo «Dibortzioa» bezalakoak edo beste edozein gai orokor izan daitezke, baina «Nire asteburua», «Noraren familia», edo «Peter-en dibortzioa», hots, gauza pertsonalak, ez dira egokiak arrazoi nabariengatik.

Ondoren, ikasleei eskatzen zaie idatz dezatela—laguntzarik gabe memento honetan—perpaus labur bat, hautatu den gaiaren alderdiren bati buruz. Ez du axolarik perpausak adierazten dutena gertaerak, eritziak edo galderak diren. Hau egin denean, irakasleak arbelean hamar-hamabost perpaus idazteko modua egin behar du. (Hogeitamar ikasle inguru baldin badira ikasgelan, ikasle biz bati eskatu beharko dio arbelera etorri eta bere perpausa idatz dezan, adibidez.) Etapa honetan irakasleak zuzendu edo argituko ditu perpaus oker edo bihurri guztiak eta perpausak zenbakitu egin beharko lituzke erreferentzia errazagotzeko.

Demagun gaia «Kirolak» zirela; orduan arbelak honako itxura hau izan behar luke:

1. Mundu guztiak kirolen bat egin beharko luke
2. Futbola da kirolik hedatuena gure artean
3. Kirolak gorroto ditut
4. Zenbaitentzat kirola egitea garestiegia da
5. Taldekako kirolek lehiaketara bultzatzen dute
6. Kirol batean ona izateko etengabe praktikatu behar duzu

7. Alferra naiz, baina ikusten ditut kirolak telebistan
8. Jendeak kirol desberdinak egiten ditu urtaro desberdinetan
9. Kirolak pertsona batzu besteekin lehian jartzen ditu
10. Kirolak onak dira zure osasunarentzat
11. Gure herrialdean futboleak jokatzen dugu udan
12. Futboleak beste edozein kiroletan baino jende gehiagok jokatzen du

Orain, perpaus hauetako gehienak hartu duten tankerari begiratu laster bat eginez, irakaslea saia daiteke gaia zehazten eta idazlanari titulu zehatzagoa bilatzen. Kasu honetan hauta dezake «Kirolari buruzko jarrerak» titulutzat. Bestela erabaki dezake titulu zabalena hautatzea. Halere, une honetan idazlana zer entzulegorentzat den erabaki behar du. Ikasleek orain taldeka lan egingo dute, launaka edo, idazlan bat egiteko, arbelean dauden ideia guztiekin, urrats hauen arabera:

- a) baldin badaude taldekideak arbelean ipini ez diren perpausak dituztenak, gehitu ideia horiek taldearen perpaus-altxorrari;
- b) erabaki ea badiren perpausak informazio berbera errepikatzen dutenak eta, hala baldin bada, bikoiztasunak kendu (hemen, 2. edo 12. perpausa kendu beharko litzateke);
- c) erabaki zein perpausa diren, horrelakorik baldin badago, idazlanaren azken tituluari ez dagozkionak (taldeek erabaki dezakete 11. perpausa baztertzea erizpide honen arabera, baina talde bakoitzak askatasuna du bere erara jokatzeko);
- d) gaiaren alderdi jakin batekin zerikusia duten perpausak bildu (5. eta 9. perpausak elkarrekin jarri beharko lirateke, adibidez);
- e) perpausen ordena erabaki, berradinean idazteko;
- f) perpausak berridatzi, beharrezkoa denean, idazlanaren estiloarekin bat etor daitezen (idatzariketa-mota hau ikasleentzat berria denean, beharrezkoa izan daiteke, al-

dez aurreko ariketa gisa, era desberdinetako berridazketak egitea. Gure adibidean, *Kirolak gorroto ditut* bihur daiteke *Zenbaitek kirolak gorroto ditu* idazlanean erabilizteko);

- g) juntagailuak sartu perpausak elkartzeko, agian irakasleak arbelean jarritako proposamenez baliatuz;
- h) hasierako perpausa bat eta amaierako beste bat idatzi.

Teknika honen barianteak erraz asma daitezke. Adibidez, talde bakoitzak eman ditzake lehenengo bost minutuak informazio berria gehitzen; edo talde bakoitzari eska dakioke erlazioatutako perpaus multzo bakoitza zabal dezala paragrafo bat osatu arte eta amai dezala hasierako eta bukaerako paragrafo bana idatziz. Gauza hauetako bat egiteko erabakia talde bakoitzaren esku uzten baldin bada, talderik onenak barietate zail bat hautatzeko joera izan dezake eta talderik kaskarrena muga daiteke helburu errazagoak lortzera.

Diskusioa

Bi teknika hauek ikasteko direla eta ez irakasteko, eta are gutxiago ebaluatze-ko, argi dagoela uste dut. Ez dut idarokizunik egin nahi azken produktuarekin zer gertatzen denaz, irakasleak ez lukeela notarik jarri behar esateko ez bada. Bi teknika hauek esku artean duten lanari edukiaren eta formaren aldetik ekarpen ugari egin diezaioten eskatzen diete ikasleei.

Nire esperientziak dio aski interes sortzen duela horrek ikasketa aberatsa eragiteko eta ikasketa hau erabilgarria dela problemei aurre egiteko emateko, bai atzerriko hizkuntzazko eskolaren barnean eta bai honetatik kanpora.

Erreferentzia

- (1) Eskerrak eman nahi nizkioke Leeds University-ko School of Education-eko

H.J.S. Taylor jaunari 1977ko Urtarri-lean Oxford-eko Bederatzigarren IATEFL Konferentzian egin nuen bi

teknika hauen azalpenaren ondorengo elkarriketan puntu hau azpimarratzea-gatik.

Itzultzailea: U.Z.E.I.

DOS TECNICAS PARA EL APRENDIZAJE DE LA EXPRESION ESCRITA

Norman Coe presenta la expresión escrita, que a menudo ha sido contemplada como una actividad solitaria, como parte de una actividad grupal. El autor describe dos técnicas que ha encontrado útiles para ayudar a los estudiantes a aprender algunas de las destrezas necesarias para la escritura de párrafos o fragmentos mayores. El producto en ambos casos es la composición convencional, pero el principal objeto del ejercicio lo constituyen las destrezas que se practican:

- Toma de notas y desarrollo a partir de las mismas

- Decisión sobre la relevancia de la información respecto a un título o cara a una audiencia determinada
- Decisión acerca de la importancia relativa de la información relevante, a fin de eliminar aquello que es menos importante
- Ordenación de información
- Utilización de conectadores (porque, además, por ejemplo, etc.)
- Proporción de introducciones y conclusiones

TWO TECHNIQUES FOR LEARNING WRITING SKILLS

Writing, often seen as a lonely activity, is presented by Norman Coe as part of a group activity. The author describes two techniques which he has found useful for helping students to learn some of the skills that are necessary for writing paragraphs or longer pieces. The product in both cases is a conventional composition, but the skills which are practiced are the main point of the exercise:

- Note taking and expansion from notes

- Deciding on the relevance of information to a particular title and audience
- Deciding on the relative importance of the relevant information, with a view to eliminating that which is least important
- Ordering information
- Using connectors (because, moreover, for example and so on)
- Providing introductions and conclusions

DEUX TECHNIQUES POUR L'APPRENTISSAGE DE L'EXPRESSION ECRITE

Norman Coe présente l'expression écrite, souvent considérée comme une activité solitaire, comme faisant partie d'une activité de groupe. L'auteur décrit deux techniques qu'il a trouvées utiles pour aider les étudiants à apprendre certaines adresses nécessaires pour l'écriture de paragraphes ou de plus longs textes. Le résultat dans les deux cas c'est la composition conventionnelle, mais le but principal de l'exercice est déterminé par les adresses qu'on pratique:

- Prise de notes et développement de celles-ci

- Décision sur la transcendance de l'information à l'égard d'un titre ou face à une audience déterminée
- Décision à propos de l'importance relative de l'information transcendante, à fin de supprimer tout ce qui est moins important
- Mettre en ordre l'information
- Emploi des mots de liaison (parce que, en plus, par exemple, etc.)
- Proportion d'exordes et conclusions